



uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria

ZIRKUITUAN SARTZEKO HELBURUA

Horretarako berritu
dute Izarraitz

udala

**Guztira 2.907
milioi pezetako
aurrekontua
onartu da**

ekonomia

**Mallas
Ucineko
langileek diote
merezi zuela grebak**



elkarrizketa

Martin Alegria:
«Ofiziyo
bakartiye dek
karteruena»

COOP



Legarda

Arana 7 • 20730 Azpeitia

Tel.: 943 81 23 09 Fax: 943.15.73.78

E-mail: coop@legarda.com


http://www.legarda.com



SUKALDEAK · BAINUAK



- ren Banatzaile Ofiziala



Kime! Serigrafia!

Serigrafia: Kamisetak, sudaderak, jertseak, poloak, eskoletarako kirol arropa, neurrira egindako txandalak, futboleko arropa, kapelak naiz diseinuzko arropa. Metxeroak...

Diseinu grafikoa: Logotipoak, diseinuak...

BESTE MATERIAL EDOTA BESTE SISTEMA BATEAN INPRIMITZEKO
KONSULTATU SALNEURRIAK.

656 73 44 81



"Suak neurtzen du urrea, euskarak euskalduna» (anonimoa)

ale honetan...

4-5-6: Joxe Luix Aizpuru, Xabier Alday eta Patxi Azpillagaren iritziak, Salegiren marrazkia...

7: Ingurugiroaren Astea egin berri da, eta udalak hurrena gauza gehiago antolatzeko asmoa du

8-9: Onartu dira 2000. urteko aurrekontuak: 2.907 milioi pezetako aurrekontua du udalak guztira

13-14-15: Greba luzea izan arren, «merezi» zuela esan dute Mallas Ucineko langileek



16: Joxin Arruti preso sartu dute (hamar urteko zigorra du), 1983ko kasu batengatik

17: Kale Gorrian taldeak etxebizitzaren arloko hiru proposamen luzatu berri dizkio udalari

18-21: Erreportaia. Herria pilotako zirkuituan sartzeko asmoa dago, Izarraitz frontoiaz baliatuz



26-27: Elkarriketa. Segabathor musika taldea: «Kontzertu asko emateko helburua dugu»



34: Elkarriketa. Martin Alegria: «Karteruena ofiziyo soziala dek, baño baite bakartiye're»

AKUILLA

Ihauteri paradisuaz



Fernando Morillo
Idazlea

Duela egun batzuk, hainbat lekutako lagunak elkartu eta hor arituen ginen honetaz eta horretaz. Festak izan genituen hizpide. «Guk Sansebastianak ditugu», zioen donostiarrak, eta «Santotomasak ere bai». «Guk ere bai», gaineratu nion nik. «Ba, guk —zioen ordiziarrek—, guk Santiagoak ditugu». «Guk ere bai, noski», jakinarazi nion. Tolosarrak: «Ihauteriak». «Bai, bai; baita azpeitiarrak ere». Arrasatearrak, berriz, Maritxu Kajoi dutela. «Gure Elegante Egunaren parekoa», argitu nien. «Gainera, alboan ditugu Andramaixek eta Sanandresak. Eta jakina, gurea: Saninaziyuek». Gezurretan ari nintzaiela hasi ziren, hori guztia ezinezkoa zela. Beste azpeitiar batek berretsi behar izan zuen dena. «Zuek bai —esan zuten orduan aho batez—, zuek bai bizi zarete!». Lurreko paradisuak hurbilen gu geundela bota ziguten bat-batean inbidiaz. Paradisuan! Eta gu konturatu gabe...

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerre; Telefonoa: 150358 (berria da)
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358-852859
Posta elektronikoa: Uztarria@hotmail.com
Inprimategia: Zubi Grafikak
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA



☎ 81 53 35

amuko Zubitik

Balore kontuak

Joxe Luix Aizpuru



Estatu Batuetako sistema ekonomikoan omen dago etorkizuna; hori omen da jarraitu beharreko eredu. Langabezia tasa oso txikia dute: flexibilitate laboralari, kale-ratze libreari eta lan prekaritateari esker. Gure arazo laboralak konpontzeko ere hori omen da biderik egokiena, esaten zaigu behin eta berriro. Langabeziarik gabeko gizartea nahi badugu Estatu Batuetako ereduari jarraitu behar omen zaio: hazten jarraitu, lokomotorari ikatza botatzen jarraitu, bestela ez omen dago ongizate gizarterik.

Ez naiz inor liberalismo ekonomikoari alternatibak ipintzeko. Ez dut nire burua ikusten langabeziaren arazoari irtenbideak ematen. Baina lan finkorik ezak, kontratu laburrek, aldian aldiko lanek, soldata mixe-
rableek zer pentsatua ematen didate.

Azpeitiko langabezia tasa Gipuzkoako txikienaren pare omen dago. Zoriontzekoa. Baina, zer baldintzetan egiten da lan?

Gazteek, batez ere, ez dute segurtasunik lanean. Gaur hemen eta bihar han. Kontratu finkoekin, ekonomia-
riaren hazkundeari trabak baino ez omen zaizkio

ipintzen. Eta hori omen da azkena... Baldintza horietan ezin da etorkizunik lantzeko; ez dago konfiantzarik enpresarioarengan; norberaren lan ahalmena auzitan jartzen da; inseguritatea eta erru sentsazioa nagusitzen da; enpresaren parte sentitzea deusezten da; ez dago fideltasunik lanean; lehiakortasuna nagusitzen da; eta abar.

Gurasoek, irakasleek eta hezitzaileek elkartasunaren baloreak behin eta berriaz azpimarratu dizkiguten arren, ez dute balio mundu laboralean. Beste balore batzuk behar omen dira bizitzan zerbait izateko.

gutunak

Azpeiti(inguru)ko automobilistak

Kilometroak'2000 dela eta antolatuta Rally Sprint inguruko kexa bat honokoa. Ondo dago motor mundua gustatu eta hainbeste balbulako automobila erostea.

Ondo dago ere rally eta halakoetan parte hartzea. Baina, kontxo, karrera bera baino astebete lehenagotik karrera jokatu den lekuan gora eta behera ibiltzea, jesukriston abiatan, beste guztiok sustoz akabatu beharrean garelako...

Ondo dago, bai, automobilarekin halako eta besteko egitea, bizia jokatzeraino. Baina besteoi, kotxea halabeharrez hartzen dugunoi, utzi lasai bizitzen.

Iñaki Arrieta

Estali gabeko igerilekua

Udaberria izanik, uda burutik kendu ezinik ibiltzea zilegia ez den arren, gai hau herriaren aurrean plazaratzea otu zaigu.

Aurreko legegintzaldiaren amaieran, guztiok ongi dakigunez, udalak estali gabeko «igerileku» baten berehalako eraikuntzaren informazio zuzen bezain koloretsua bidali zigun. Bertan, oso diseinu aurrerakoia zuen igerileku bat aurkeztu zitzaigun: telebistak saltzen dituen 90-60-90 neurri desiratuak zuzen bezain egoki betetzen zituena, baina igeri egiteko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak betetzen ez zituen, eta, ondorioz, igerileku behar zuena txapuzoia hartzeko putzu bihurtuz.

datuak

Martxoaren hirugarren astean emandako datuaren arabera, Nuarbeko Ibaierdi urtegiaren %85 zegoen urez beteta.

Hala ere, eta zorionez, nahiz eta udalak berehala eraikiko zuela esan, obra hau ez da oraindik aurrera eramana. Horregatik, ezer egiten hasi aurretik, gure iritzia plazaratu nahi genuke UZTARRIAREN talaiaz baliaturik. Gure iritziz, herrian zerbait eraikitze-
tan —eraiki behar bada behintzat—, balioanitz izango den instalazio bat eraiki beharko da, non uretan landu daitezkeen aktibitate guztiak edo gehienak behintzat aurre-

ra eramana ahaliko diren. Baldintza hauek ondoen betetzen dituen instalazio-mota lgerileku Olinpikoa deritzaiona da; hau da, 50x20m luze-zabalera duen lauki zuzena (gutxi gora behera) eta ekintza ezberdinak egiteko balio-
ko duen beharrezko sako-
nera banaketarekin. Mota honetako instalazio ugari dago gure bazterretan (Ordizia, Bergara,...), eta ez dago bertaratutako basterik informazio gehiago jaso ahal izateko.

Amaitzeko, jakina da okerretatik ikasten dela, eta gure herriak badu nahikoa eskarmentu kirol instalazioei dagokionean. Horrek, behingoz, zerbaiterako balioko ahal du, gero damutu ez gaitezen.

Rafa Zubeldia eta Pablo Dominguez

UZTARRIAREN oharra: gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektroniko honetara: uztarria@hotmail.com

azketako ura



Ilusioak eta oroitzapenak

Xabier Alday



Ume garaiko gure jolasak ez zituzten kafetegiek gordetzen, plazako arkupeek akaso, gainontzeko jolaslekuak gu baino helduagoek hartuta zituztenean; edo, ostikorik emateko ezer ez eskuartean, gaztexeagoak noiz iritsiko zain zeudenean.

Irudimenaz Tarzanen filmeetatik ateratako oihan zeharka ezina bihurtzen genuen Betharramitak baino lehenago zegoen etxe zaharraren hondakinetatik sasiz inguratuta igarotzen zen zidor estua. Aurrerago, dentista zaharraren etxea zegoen, eta ilundu ondoren

jolasean leher eginda etxeratzerakoan barruko gaisoen intziriak entzutean, gure irismenetik kanpo zeuden leihoetara igotzeko irrikia gailentzen zitzaigun eta sekulakoak botatzen genituen, ezagutu ez arren, dentista zaharraren kontura: alikateekin ateratzen zituela haginok, lizundutako anestesia zerabilela... Noski, guk ez genien beldurrik dentistei. Utikan!

Baina inoiz lagunuen batek isekaka erasotzen zigunean, zidorrera iritsi aurretik serio asko beldurtzeko kontuak aipatzen hasten ginen ahalik eta ahots misteriotsuenarekin, indar hu-

tsez mendean hartu aurretik. Umeak krudelak bezain xaloak dira umeentzako.

Oroitzapen lainotsuak dira, egun ez dago orduko zidor zaharraren, edonora korrika bizian joan beharreko grinaren —umetzaroaren— aztarrenik. Lehengoak botata eraikin hotzagoak altxatu dituzte. Norentzako? Ezin diot gai honi buruz Kale Gorrian-ekoek kaleratutakoari adostasuna besterik gaineratu.

Ahaztu aurretik! Lehengo Harzubiko bidegurutze mardikatuaren ordeztar tonda berria ari dira egiten, auto-eskoletako ikasleen lasaitasunerako.

otso beltz

Andoni Salegi



gaia emanda

Udaberria

Zelaiak loratuko zaizkigu eta zuhaitzak edertu, ibaietako ur gardenetan amorrain gehienak estu, txoriak askatasunez hegan abestu eta abestu... udaberriak duen dizdira beste urtaro batek ez du.

Urtero gisan udaberriak pizten digu osasuna, udaberriak poza dakarki ta pozak lasaitasuna. Aste Santuko oporralditan iritsiko da eguna mundu hontatik atera gabe arnasa hartuko duguna

Urko Egaña

Euskarazko prentsari buruz

Euskarazko prentsak funtzio garrantzitzua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako hedapena eta lotura mantentzen duen elementu apurretako bat da. Bestetik, euskaraz bizitzea posible egi- ten duen ezinbesteko elemen- tua da». Hala zioen duela lau bat urte Jon Sarasuak Euskal- kom jardunaldietarako prestatu zuen txostenean; eta hala onar- tu zen jardunaldi haietako ondo- rioetan.

Egun, esanahi guztia man- tentzen du baieztapen hark. Irrati eta telebistetan egindako bidea gutxietsi gabe, euskaraz- ko prentsa izan baita, dudarik gabe, azken urteotan euskara- ren gorpuzte, modernizatzeko eta eguneroko beharretara molda- tzeari mesederik handiena egin dion medioa. Baita Internetek eta teknologia berriek euskara- ri dakartzkion erronken kon- tzentzia hartu eta horiei aurre egiteko oinarriak jartzen haste- ko orduan ere.

Eta hala eta guztiz ere, laguntza eta babes publiko txi- kiena jaso duen komunikazio arloa izan da urteetan. Egun, gauzek hobera egin badute ere, oraindik arazo larriak bizi ditu euskarazko prentsak bere azpiegitura indartu eta gizarte presentzia hazteko. «Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezin. Irits litekeenera iritsi ezina da egoeraren laburpena», jarrai- tzen zuen Sarasuak aipatu lanean. Eta ordutik hona hazi, hazi egin bada ere, hazkunde horren oinarriak ahulak dira oraindik.

Gaur nazio mailako euska- razko egunkari bat, informazio orokorreko bi astekari (Iparral- dean eta Nafarroan zabaltzen

al du El Correo taldeak *Zabalik* bere astekaria?) eta publiko eta behar mota desberdinei zuzendutako gai eta maiztasun zenbaiteko aldizkari gutxi batzuk ditugu eskura (haurrentza- koak, dibulgaziokoak, akade- miko-pentsamenduzkoak,...). *Egunkaria*-k 13.000 ale saltzen ditu egunero eta 30.000 irakur- le inguru ditu; besteak kopuru horietatik oso behera daude.

Horien ondoan, Asier Aran- guren duela urte batzuk bil- dutako datuen arabera, 46 eus- karazko aldizkari lokal inguru daude (UZTARRIArekin 47 izan- go lirateke), honela banatzen direnak: 28 Gipuzkoan, 11 Biz- kaian, 6 Nafarroan eta 2 Ara- ban. Guztira 122.000 ale bota eta 427.000 irakurle izango lituzkete; alegia, hiru euskaldu- netik bik euskal aldizkari loka- len bat irakurriko luke.

Ikus daitekeenez, aldea ika- ragarria da. Prentsa lokala izu- garritzko tresna eraginkorra izan da euskaldungoa idatzita- ko euskarara erakartzeko, eus- karaz irakurtzeko ohitura mini- mo batzuk sortzen laguntzeko. Are gehiago: euskarak bere egin du, telebistan ez bezala, berta-bertako, eremu lokaleko informazioaren mundua, au- rrea hartuz, modu nabarmene- an gainera, gaztelerari. Eta ez edozein modutan, gainera, bai- zik eta, gehienetan, UZTARRIA- ren kasuan bezala, prentsa eta komunikazio eredu aurreratu, ausart, bizi eta modernoarekin. Baina eremu lokal horretatik haratago amildegia dago.

Irakurleak behar ditu euska- razko prentsak, baina ez ditu horiek eremu lokaletik kanpo aurkitzen. *Bai Euskarari*-ko Prentsa Idatziaren gaineko txostenean gazteak aldagai ga-

PRENTSA LOKALA

Prentsa lokala izugarritzko tresna eraginkorra izan da euskaldungoa idatzitako euskara erakartzeko; eta aurrea hartu dio gaztelerari

EGOERA NAZIO MAILAN

«Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezin. Irits litekeenera iritsi ezina da laburpena», zioen Jon Sarasuak. Gehiago inbertitu behar da

PROFESIONALITASUNA

Aurrera egingo bada, euskarazko prentsako lan-taldeek ere (kazetariak...) profesionalak behar dute izan

rrantzitsutzat jotzen dira kopu- ruei bultzada bat emateko, eurak baitira prestatuntza han- diena dutenak euskaraz ira- kurtzeko. Baina onartzen da ere bai publiko mota horren irakurtzeko joera eskasa dela, baita horiengan eragiteko zail- tasuna ere.

Azkenean iritsiko da, bai, euskal prentsa izan daitekeena izatera. Baina luze joango da hori, eta bien bitartean produk- tuak egokitzen, hobetzen eta dibertsifikatzen jarraitu behar da, jai dugu bestela. Horre- tarako, argi da, derrigorrezkoa da baliabide gehiago inberti- tzea, eta horiek, une honetan, publizitatearen merkatua eta beste motako sarrera komer- tzialen lantzea ahaztu gabe, ogasun publikoan daude: uda- letan, foru aldundietan, Eusko Jaurlaritzan.

«Gu, 100.000 pezeta kobrat- zen duen gizarajo-banda bat gara», zioen duela urte batzuk Luis Fernandezek prentsako euskal kazetarien egoera des- kribatzeko, eta *Euskaldunon Egunkariak* Eusko Jaurlaritza- rekin sinatutako akordioak ego- era hobera egiten lagunduko bazuen ere, asko eta asko ez dira, oraindik, kopuru horretatik oso urrun ibiliko. Zer esanik ez prentsa lokalean. Ordea, aurre- ra egingo bada, hemen ere lan- taldeek profesionalak behar dute izan. «Onenak bertan ego- teko, lan-kondizio duinak eskaini behar dira», zioen Asier Aranguren bere tesian. «En- presa egitura landu behar da lehiakortasunean aritzeko. Bo- rondatezko lanak ezinbesteko lagungarri behar du, baina ez proiektuen bizkarrezurra». As- tindu ba poltsikoa, euskarak merezi du-eta euskarazko pren- tsa (eta azpeitiarrok ere bai).

Patxi Azpillaga
EHUko irakaslea

Ingurune ibilbidean

II. Ingurugiro astea egin berri da

► Ikastetxe, heldu eta enpresei bideratua izan da Ingurugiro astea ► Udaletxe azpian hondakinei buruzko erakusketa izan da ikusgai ► Enpresei zuzendutako goiz oso bateko ekitaldia ere izan zen Trenaren Museoa

Nerea Uranga



Enpresei zuzendutako eguneko une bat. N.URANGA


Bigarren goz, aurtan egin da II. Ingurugiro astea, Udalak eta 4R fundazioak antolatuta. Eta arlo desberdinei zuzendua izan da. Ikastetxeei heziketa programak bideratu zaizkie herriko azpiegiturak kontuan hartuz, Ingurugiro Etxea ikusiz, Trenaren Museoko transportearen gela berria ezagutuz. Udale-

txe azpian hondakinen erakusketare ere izan da.

Helduak, azpiegiturok bisitatze- ra gonbidatzeaz gain, Lapatz zaborte- gia ezagutzeko aukera izan zuten. Bestalde, autoen azterke- ta egiteko Ecomovil gunea egon zen aste guztian igerileku atzeko aparkalekuan.

Enpresei goiz bat zuzendu zitzairen. Ekitaldian erantzun zibila, eraginkortasun energetikoa eta lehiakortasuna, produkzio garbia, Ekoeskan eta ISO 14.000 eta kalitate sistema eta istripuen aurreikuspena izan zituzten mintzagai. «Hamazortzi enpresek hartu zuten parte. Amaierako eztabaidan balorazio ona jaso zuen ekitaldiak. Kontaktuan jartzeko bada ere balio baitu. Gu AENOR, IHOBE eta Azpeitian Lantzen kontaktuan jarri ginen. Guztira 200 gonbidapen bidali genituen Azpeiti eta Azkoitiko enpresetara», esan digu Aitor Aranguren, Ingurugiro Batzordeburua (EA).

Datorren urterako, Ingurugiro astean asti gehiagoz antolatu nahi du Aranguren. «Lau hilabete dira ingurugiro batzordea sortu zela, eta aurtengo ekitaldirako ez ditugu nahi beste gai jorratu. Zintzilik gelditu zaigun gaie- tako bat baserriarena izan da. Datozen ekitaldietarako astea indartu egin nahi dugu eta aipatuta- ko gaiak jorratu». ■



MILAGROSA

(2-12 urte)

Tel. 943 81 63 80



JESUITINAK

(2-12 urte)

Tel. 943 81 22 49


Azpeitiko

Ikastetxe

Elkartuak

(12-18 urte)

Tel. 943 81 02 10



BETHARRAM



IRAURGI

Aurrekontua onartua

EAJren eta EAren aldeko botoekin

Berandu, baina Azpeitiko Udalak ere jadanik badu 2000. urteko bere aurrekontua. Martxoaren 29ko udalbatzarrean onartu zen, hain zuzen, aurrekontua, Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) eta Eusko Alkartasunaren (EA) aldeko botoekin. Biek lau urteko hitzarmena dute udalean.

Euskal Herritarrok (EH) ez zen ados azaldu bi alderdi haiek aurkeztutako aurrekontuarekin, batzarrera eraman zituen bere proposamen batzuk, eta, gainera, EHk esan zuen ez zitzaiola ongi iruditzen EAJk eta EAK aurrekontua osatzeko prozesuan jarraitu duten bidearekin, ez omen diotelako aurretik ezer kontsultatu EHri. «Urtero espero izan dugu aurrekontua egiteko orduan geuk ere parte hartzea, baina aurtan ere aurrekontua eginda aurkitu dugu», esan zuen Miren Odriozolak. Javier Beobidek (EA) erantzun zien EHkoei: «Aurrekontuen proposamena batzordeburuek egiten dituzte, bakoitzan bere batzordekoa, eta, beraz, lan hori geuri dagokigu. Batzordeetako bileran esaten direnak jasotzen dira, eta gero geuk biltzen ditugu, azkenik alkatetzatik eta udalbatzarretik pasatzeko eta onartzeko. Hemen banatzeko diru bat dago eta ahal den ondoren banatzen dugu diru hori guk».

2.561 milioiko aurrekontua

Udalak, guztira, 2.907 milioi pezetako aurrekontua kudeatuko du urte honetan. Haietatik 2.561.861.702 pezeta udalarenak bereak dira (hortik 122 milioi ondorengo arloetara bideratuko dira), eta

beste milioietatik 226 Azpeitia Lantzen elkarte munizipalekoak dira, 105 milioi Lapatz Zabortegekoak, 10 milioi 4 R Fundaziokoak, 55 Euskara Patronatukoak eta 72 Kirol Patronatukoak.

Udalak berak 2.561 milioi pezeta horietatik 1.572 aurrekontu arrunt

modura erabiliko ditu, eta beste 989 milioiak inbertsioetarako.

Legegintzaldi honetan hiru batzorde berri daude udalean (Ingurugiroa, Turismoa eta Komerztioa, eta Gazteria), eta aurrekontutik 110 milioi pezeta bideratu dira batzorde haietara.

EHk hainbat proposamen

EHk prozeduraren kontra iritzia azaltzeaz gain, hainbat proposamen ere azaldu zituen plenoan. Haien artean, herriko antolamendua egitearena, lehiaketa publikoa bidez. Jose Mari Bastida alkatearen ezezkoa jaso zuen: «Onerako edo txarrerako, herriko plana jada eginda dago». Bestetik, EHkoak ez ziren ados azaldu zine areto bat erostearekin, «San Agustin eta Basazabal baditugulako eta horiekin nahikoa delako». Aterperik gabeko igerilekuaren kontra ere azaldu ziren Euskal Herritarrok-eko sei zinegotziak.

EAJko eta EAKo 11 kideak kontent azaldu ziren plenoaren bukeran, eta haien artean oso gustura zen Nekane Larrañaga Kultura batzorderua, «iazko aurrekontuarekin alderatuz, aurtan hoge milioi gehiago dituelako Kulturak, eta, gainera, Hirigintza Batzordetik dirua doa zire aretoa erosteko eta Basazabal berritzeko».



Zor gutxien Azpeitiak

Gipuzkoa Diputazioak Ogasun Sailak martxoaren hasieran emandako datuen arabera, Azpeitiko Udalak 1999. urtearen bukaeran 325 milioi pezetako zor «bizia» du; biz-

tanleko 24.063 pezetakoa. 1998an guztira 405 milioiko zorra zuen. Azpeitikoa da Gipuzkoan bost mila biztanle dituzten herrien artean zor gutxien duen udala.

- ▶ 2.561 milioi pezetako aurrekontua izango du Azpeitiko Udalak urte honetan ▶ Beste 350 ere erabiliko dira erakunde batzuetarako
- ▶ EAJk eta EAK eman diote baiezkua aurrekontuari

Nerea Uranga

batzordeetako diru kopuruak



hartutako erabaki zehatz batzuk

Babes Ofizialeko

Etxebizitzak. 200 bat milioi pezeta bideratuko dira promoziorako eta lur industrialak erosteko.

Urbanizazio lanak.

Hainbat gune urbanizatuko dira: Harzubia (100 milioi bideratuz), Landeta Hiri-bidea (60), Sanjuandegi (20), Jose de Artetxe (13), Loiolabidea berrurbanizatu (12), Sanjuandegiko bidegurutzea (5), Loiolako sarbidea egokitu (5)...

San Agustin. 60 milioi, berritzen segitzeko.

Basazabal. 30 milioi, eraikuntza berritzen joateko. Kulturarako erabiliko litzateke Basazabal.

Zine aretoa. Herriko zine areto bat erosiko da, eta 70 milioi bideratuko dira horretarako.

Gazteen lokalak. Gaztelekua martxan jartzeko, 25 milioi.

Igerileku irekia. Egungo Igerilekuaren

atzean aterperik gabekoa egiteko, 70 milioi.

Izarraitz frontoia. 85 milioi.

Komunikabideak.

Atal berria da, eta Kulturaren dago. 7 milioi. Kaito eta UZTARRIarentzat lirakeke.

Azpeitian Zer? 6 milioi.

Argitalpenak. 11 milioi.

Gida turistikoa. 2,5 milioi.

Antzerki Topaketak. 11,5 milioi. laz baino milioi eta erdi gehiago.

Haur-gazte ekintzak. 8,3 milioi.

Udalbiltza. 2,5 milioi pezeta. Atal berria da hau.

3. munduari laguntza. 10 milioi.

Baserri bideak. 20 milioi.

Ingurugiroa. Batzorde horretan azterketak eta proiektuak egiteko, 19,6 milioi.

Mendiak erostea. 20 milioi.

Herriko festak. 32,9 milioi.

Auzoetako festak. 5,1 milioi.

Festetako programa. 4 milioi. ■

UZTARRIaren telefono zenbaki berria:

15 03 58

UZTARRIaren helbide berria: **Julian**

Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre

uztarria

motxien

Pasaiaiko sarraskiaren XVI. urteurrena

Martxoan zehar *os-patu* zuten Pasaiaiko enboskadaren XVI. urteurrena, Azpeitian. Curro eta Pelitxo herrikideak erail zituzten orduan Espainiako indar polizialek (baita haien bi kide ere). 25ean izan zen egun nagusia (bazkaria, kontzertua, manifestazioa...).

200 sinadura baino gehiago kiroldegia irekitzearen alde

Udal Kiroldegia asteartetik ostirala arte goizez irekitzearen aldeko sinadura bilketa bat egin dute bazkide batzuek (urtearen hasieratik dago itxita; proba moduan ekaina arte), eta 200 sinadura baino gehiago lortu dituzte. Udalean eskaera sartu dute.

EAJ garaile hauteskundeetan herrian, eta Espainiako indarrak behera

EAJk irabazi zituen Espainiako hauteskundeetan herrian. 3.225 boto lortu zituen. EA izan zen bigarrena, 1.175ekin. Espainiako indarrek, behera egin zuten: 1996an PSOEk, PPk eta IUk 1.231 boto lortu zituzten, orain 1.174. Abstentzioak asko egin du gora: %31tik %48ra (EH ez zen aurkeztu).

erreturatutan



I. ALBERDI

Grazia handiko saioa egin zuten Mañukortak eta Zeberio Orkatzen

Saio bitxia antolatu zuen Orkatz Kultur Elkarteak martxoaren 10ean Orkatzen bertan, Zeberio eta Gregorio Mañukorta bertsolari beteranoak eraman zituelako, eta ez da ohikoa horrelako jendeak parte hartzea Orkatzen. Baina bete-betean asmatu zuten Orkatz Kultur Elkartekoek, grazia handiko saioa egin zutelako bi bertsolariek. Ordubete eta

erdiz aritu ziren, isildu gabe. Tartean txistek ere bota zituzten, eta haiei ere graziaz betetakoak.

Albiste txar bat izan zen herrian martxoaren 11n, Landetan Langarbi

Barnizatuak tailerra erre egin zelako (Pedro Iriarte tailerraren aurrean dago kokatua). Kiskali egin zen, bat-batean eta ezustean kiskali ere. Goizeko hirurak eta erdi alde-ra hasi zen erretzen —ez zekiten zergatik—. Hamabi langilek eginen dute lan.

Bat-batean eta ezustean erre zen Langarbi



I. ALBERDI

KM'00-ren beste ekitaldi jendetsu bat



EGUNKARIA

Ez dira kexatuko Kilometroak'00-ko antolatzaileak bere ekitaldietan edo jaialdietan jendea ematen

ari den erantzunarekin, arraskatatik arrakastara dabilatzalako. I. Rally-Sprinta izan da azken ekitaldia —martxoaren 18an izan zen—, eta 25.000 lagun bildu ziren. Azpeititik Urraki igo eta Goiatzen zeukaten bukaera partehartzaileek, eta

Iñaki Alberdi herrikidea izan zen irabazlea. UZTARRIARA iritsi zen kexurik, hala ere: «Ikusleek txerri eginda utzi zituzten parajeak» (antolatzaileek hurrengo egunean garbitu zuten).

Oñederren kontrako ekintza Loiolan



I. ALBERDI

Azkoitiar eta Azpeitiar batzuek Oñeder-en kontrak ekintza bat

egin zuten martxoaren 11n, Loiolan. Marcial Ucinetik Oñeder-era zihoan kamioi bat geratu zuten, eta bi lagun kateatu egin ziren kamioiaren atzealdean. Pare bat orduz egon zen kamioia geldirik. Idatzi bat ere banatu

zuten, Oñeder gogor salatuz.

motxean

Udabiltzak deituta festa Aberri Egunean

Iaz bezala, festa txiki bat egingo da Aberri Egunean (hilaren 23-an) plazan. Udabiltzak antolatu du ekitaldia (Euskal Herriko toki askotan egingo da).

Lasa, Lagun Onak taldeko atezain ohiak 38 egun gose greban

38 egun daramatza gose greban Sebas Lasa, Lagun Onak-eko lehen taldeko atezain ohi donostiarra. Orain dela ia bi urte atxilotu zuten, eta Valdemoro kartzelan dago. 18 bat kilo galdu ditu. Euskal presoek prozesu politikoan parte hartzeko eskubidea dutela eskatzen dute, besteak beste. Behean ageri da Lasa, makurtuta.



80 bat lagun Euskara Patronatuaren ikastaroan

80 bat lagunek eman dute Euskara Patronatuak euskaraz hobeto idazteko antolatutako ikastaroan ize-na. Gustora dira antolatzaileak.

motxien

Fernando Quintanaren erakusketa egon da Antxietan

Antxieta Etxeak, Kuxa gizarte-ekintzaren ekimenez, beste erakusketa bat izan du martxoan: Fernando Quintanarena. Gernikarra da jaiotzez hura (1927), baina zeharo gazte zela Azkoitira joan zen bizitzera gurasoekin. 27 urte zituelarik, Argentinara joan zen, eta egun hantxe bizi da.

Antzerki Topaketetarako kartel lehiaketa martxan

Jadanik ireki da aurtengo Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea, eta egileek maiatzak 15 arteko astia dute horretarako. Sari bakarra banatuko da, eta irabazleak 150.000 pezeta eskuratuko ditu.

erretratutan

Hasi da Gazteok Zer?!-en futbito txapelketa



Oraintxe dela ia hiru aste hasi

da Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatutako futbito txapelketa. 25 bat ekipok eman dute izena bertan, eta finala jokatu bitartean Betharramistetan ariko dira partiduak jokatzeko. Finala, aldiz, berriro herriko plazan jokatu nahi du Gazteok Zer?!-ek. Orain dela bi urte jokatu zen lehenengo aldiz txapelketako finala plazan (argazkian, txapelketaren azkeneko eguneko partidua). Gazteok Zer?!-ek txapelketa hau ez du antolatzen antolatzeagatik, baizik eta gazteen artean giro bat sortzeagatik eta elkar ezagutzeagatik, betiere aurrera begira egin daitezkeen gauzetarako indarrak bilduz asmoz.

ERDI KALE, Behea z/g
Tel. - Faxa: 943 15 12 91
AZPEITIA

IOSU
OPTIKA

OPTICO · OPTOMETRISTA · LENTES DE CONTACTO

OINKARI
OINETAKOAK

Erdi Kalea, 5

Tel. 943810555

ROS-MASKAR



estetikako
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

25 egun sare-mailarik gabe

Kostata, baina azkenean lortu zuten akordioa Mallas Ucinen

► «Soldata duin baten alde»,
25 egun egin berri dituzte gre-
ban Mallas Ucinen ► Azkenean
iritsi ziren akordiora ► Langile-
ak, gustora; nagusiek ez diote
erantzun UZTARRIAREN galderei

Iban Arregi

Otsailaren 28an hasi eta martxoaren 23an buka-
tu; guztira 25 egun egin
zituzten greban Lasaoko Mallas
Ucin enpresako langileek. Goi-
zean goiz jaiki eta enpresara *bi-
sitara*, batzarrak egin, egunero-
ko protesta ekintzak, Marcial
Ucin aurreko kontzentrazioak,
manifestazioak, kotxe karaba-
nak, zuzendaritzarekin bilerak...
Egun neketsuak izan direla ai-
tortu digute langileek, «tentsio
handiko egunak», baina merezi
izan duela: «Azkenean lortu du-
gu bilatzen genuena, eta balora-
zio positiboa egiteko moduan
gara». Iñigo Arregi mintzo zaigu
horrela, Mallas Ucin enpresako
langileen batzordeko kidea. Ondoan di-
tu Ibon Arregi eta Gurru, hauek
ere batzordeko kideak, eta Xa-
bier Agirretxe, Azpeitiko ELAko
arduraduna ere bai —UZTARRIA
enpresako zuzendaritzarekin
ere jarri zen harremanetan, bai-
na gure galderei ez zieten eran-
tzun—.

Grebara sartu zirenean enpre-
sako zuzendaritzaren eta langi-
leen jarrerak desberdinak ziren
oso. Langileek 30.000 pezetako



Lasaoko Mallas Ucin enpresa.

EGUNKARIA

igoera lineala eskatzen zuten,
eta zuzendaritzak %1eko igoera
eskaintzen (5.000 pezeta ingu-
ru). Ordea, 25 egun eta gero
akordioa lortu zuten: bestek
beste, hileko 30.000 pezeta in-
guruko soldata igoera.

Herrian ez zen aspaldian hala-
ko greba gogorrik egin. Mallas
Ucin enpresako langileek diotenez,

«oraindik ere greba tresna bali-
garria dela erakutsi dugu». Baina
eurek oinarri sendoa zutela dio-
te, «eskatzen genuena ez zen
kapritxo bat, are gutxiago enpre-
sa hain ondo doala kontuan har-
tzen badugu».

Grebaren hasierako egunetan
Mallas Ucin enpresako zuzendaritzak
«oso gogor» jokatu zuela dio Xa-

**Egin
publizitatea
UZTARRIAN**

Telefono zenbakia:
15 03 58 (edo utzi mezua)

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

Bi eskaintza nagusiak eta akordioa

Langileen hasierako plataforma

Horratx langileek greba hasieran eginiko eskaintetako nagusienak:

- Esparrua** ◉ Langile guztiei eragingo die akordioak.
- Iraupena** ◉ 2000ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.
- Soldata** ◉ 2000ko soldata, 1999ko Kontsumo Prezio Indizearen balioa gehi 30.000 pezeta igoko da hileko.
- Bajak** ◉ Soldataren %100 ordainduko da.

Langileek eta enpresak adostutakoa

Hauxe da bi parteen adostutako akordioa, 25 eguneko greba eta gero:

- Esparrua** ◉ Langile guztiei eragingo die, baldintza ekonomiko banakakoak

dituzten eta enpresa-hitzarmenean adostutakoa baino gehiago irabazten dutenei izan ezik.

- Iraupena** ◉ Urtebetekoa; 2000ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31a artekoa.

3. astean zuzendaritzak eginiko eskaintza

Zuzendaritzak ez zuten grebaren hirugarren astea arte erantzun; proposamen nagusienak dira hauak:

- Esparrua** ◉ Langile guztiei eragingo die, banakako hitzarmenak dituztenei izan ezik.
- Iraupena** ◉ 2000ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.
- Soldata** ◉ 1999ko KPI eta 22.000 pezetako igoera.
- Baldintza** ◉ Eskaintza, greba uztearen baldintzapean.

- Soldata igoera** ◉ %2,9ko igoeraz gain, hileko 22.000 pezetako igoera 14 saritan, eta beste 12 saritan hileko 9.300 pezetako igoera, baina pizgarritzat ez da joko azken kopuru hori.

- Hitzarmen probintziala** ◉ Hitzarmen probintzian biltzen diren eskubideak lo-

tzaileak dira enpresako langile guztientzat; enpresa hitzarmen honek gaintzen dituenak indargabeturik geldituko dira; enpresa hitzarmen honetan biltzen ez dena, berriz, Gipuzkoako Metal Hitzarmenaren arabera arautuko da akordioaren arabera.

bier Agirretxek: «Hasiera batean ez zuen gaia hartu eskatzen zuen seriotasunarekin, ez baita normala grebako lehenengo bi asteetan bilera bat bera ez egitea». Iñaki Odriozolak ere —hau ere Mallas Ucinoko langilea eta LABeko kidea— Agirretxeren bidetik jardun du: «Oso-oso gogor jokatu zuten hasierako egunetan, baina jarrera aldatu beharra zeukaten».

Enpresak hainbat «azpijoko eta trikimailu» erabili zituela diote langileek, «betiere greba puskatu nahian». Ordea, Ibon Arregik dio greba hori puskatzea ez zela batere erraza: «Langileak gogotsu geunden hasiera-ha-

Marcial Ucinen beste bat?

Marcial Ucin bertan ere badute nahikoa lan azken albisteen arabera. Hitzarmen kolektiboa sinatzeko ez dira ados jartzen, eta langileek ostegun honetan, hilak 6, greba egingo dute. 300 langileetatik 36 bakarrik daude grebaren kontra. Ados jarri ezean, hilaren 20tik aurrera mugagabeko grebari ekingo diotela esan dute. Besteak beste, %8ko soldata igoera eskatzen du langileen batzordeak.

sieratik, eta helburuak oso garbi genituen; geure arteko giroa oso ona izan da, eta egoera horretan oso zaila zen greba haustea».

«Hainbeste egun behar al ziren auzia konpontzeko?»

«Zergatik pasatu zuen enpresak hainbeste egun auzia konpondu gabe? Zuzendaritzako norbaitek hanka-sartze ederra egin zuen, hasieratik hitz egin beharrean bukaera arte ezer egin ez dutelako, beraien kalterako», dio Gurruruk, harritu aurpegiarekin.

Hamabost egunean bi parteen arteko bilerarik ez zen egin, eta hurrengo egunetan zuzendaritzak «eskaintza lotsagarriak»

LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Emparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
E-mail: Luba.ase@Euskalnet.net

Harategia Odriozola
Harategi
Especializatua
KALITATEA
Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15

OLAKOR
gozotegia degustación
Urbinate Auzunea, 1
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Urrut.: 943 81 46 65

Orain mende laurdena beste greba handi bat

Gogoan geratuko zaie askori Mallas Ucineko greba hau, handia eta luzea izan baita. Orain dela hogeita bost bat urte ere beste greba handi bat izan zen herrian: egur-tailer guztiak geratu ziren, bat izan ezik. Besteak beste, jadanik desagertutako enpresa handi samarrak geratu ziren: Damaso, Azcue y compañía, Pogu... Guztira, 600 bat lagun egon ziren lanik egiteke hilabete eta erdi luzean. Bi aldarrikapen zituzten: batetik, politikoa (frankismoaren amaieraren itzalpean bizi zen Euskal Herria), eta, bestetik, laborala (soldata



ARENAS

igoera eskatzen zuten). Egur-tailerretako langile guztien artean eta enpresa haietako langileen ordezkarien artean batzorde bat osatu zen, eta azkenean,

makina bat protesta egin ondoren (behin Urrestillako enpresa bateraino joan ziren 600 langileak manifestazioan), lortu zituzten aldarrikapenak.

**25 egun eta gero
lortu zuten akordioa:
besteak beste,
soldatan hileko
30.000 pezeta
inguruko igoera**

egin zituela esaten dute Mallas Ucineko langileek. Azken egunetan, ordea, enpresak jarrera goitik behera aldatu zuela uste dute.

Berriro lanean dira Mallas Ucinen, «orain soldata duinagoarekin». Gustora daude, egindakoak merezi izan duelako uste osoarekin. Eta egoera berean berriro berdin jokatu omen lukete, «inongo zalantzarik gabe». ■



Langileak, herrian, 25 egunetan egindako manifestazio batean.

EGUNKARIA

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Eskulanak

Est-Bel

- Zurezko altzarien polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

Matrikula xabalik urte osoan

Beste azpeitiar bat preso

Martxoaren 28an espetxeratu zuten Joxin Arruti, orain dela hamazazpi urteko kasu bategatik

► Martxoaren 28tik preso dago Joxin Arruti herrikidea
► 1983ko kasu bategatik sartu dute espetxean ► Hamar urteko zigorra jarri dio espainiar epaile batek


Enekoitz Esnaola

Azpeitiak beste herrikoseme bat du preso: Joxin Arruti (Juan Carlos Azpitarte *Paterra* da bestea). 1983ko kasu bategatik sartu dute Arruti presondegian, espainiar epaile baten ustez parte hartu zuelako Jesus Gibert enpresari azpeitiarraren bahiketan. Hamar urteko zigorra jarri dio.

Joan den urtean Espainiako Auzitegiak epai bera eman zuen, baina Arrutiren abokatu Iñigo Irui-nek errekurritu egin zuen. Baina joan den martxoaren 16an epai hura baieztatu egin zuen Espainiako Auzitegi Gorenak. Ertzantza 27an joan zen Arrutiren bila, baina ez zuen aurkitu. Hurrengo egunean Arruti bera aurkeztu zen Donostiako Auzitegian, eta handik Martutenera eraman zuten.

Eskaerak udalean

Espetxeratzea zela eta, EH-k mozioa sartu zuen udalean, eta martxoaren 29an tratatu zen lehenengo aldiz. Lau eskaera zituen EH-ren mozioak. Hauek ziren, laburbilduz: 1. Joxin Arrutiren espetxeratzea salatzea; 2. Haren senideei samina eta elkartasuna adieraztea; 3. Espainiako Espetxe Politikaren arduradunei Joxin Arruti, preso dagoen bitartean, Azpeititik gertuen dagoen espetxean egon dadila eskatzea; 4. Joxin Arruti preso dagoen bitartean, Azpeitiko Udalak haren sendiari hilero 45.000 pezetako laguntza ematea.



1996ko urriko bi une pozgarriak ♦

1996ko urrian itzuli zen Joxin Arruti Euskal Herrira, deportazioa hautsita (Venezuelan zen). Hala ere, hiru bat hilabete-an espetxean egon behar izan zuen, Carabanchelen (Espainia). 1996ko urriaren 15ean utzi zuen espetxe hura (ezkerreko argazkian ageri da handik irteten). Handik lau egunera harre-ra-omenaldia egin zitzaion Azpeitian (goiko argazkian ageri da une bat).

Ez zen orduan, ordea, ezer erabaki. EAJk eta EAK esan zuten ez zutela mozio hura ondo aztertzeko astirik izan, eta kontua apirilaren 5eko ohiko plenorako utzi zen (UZTARRIA apirilaren 3an eman genuen inprimategira).

350 lagun manifestazioan

Ugariak izan dira herrian protestak Arruti herrikidea espetxean

dela jakin zenetik. Egun berean egindako manifestazioan istilu batzuk izan ziren lagun batzuen eta Ertzantzaren artean. Martxoaren 31n ere izan zen manifestazioa, eta antolatzaileen arabera, 350 lagun bildu ziren orduan. Ikastetxeetan, berriz, Joxin Arrutiren atxiloketa salatzeke kontzentrazioak egin dira azkeneko egunetan. ■

Kale Gorrianek hiru proposamen udalari

Besteak beste, gune bat eskatu du

► **Kale Gorrianek 3P ezinbestekoak aurkeztu ditu**
 ► **Etxebizitzaren eta eskariaren azterketa egitea eskatu du** ► **Etxebizitza gunearen beharra proposatu du**

Nerea Uranga

Kale Gorrian Etxebizitza Duinaren Aldeko Gazte Kolektiboak udalari zuzendu dizkion hiru eskakizunen berri eman du. Kale Gorrian «kezkakuta» agertu da gazteek etxe duin bat lortzeko dituzten arazoekin, eta, ondorioz, udalari epe motzerako hiru eskakizun

zuzendu dizkio. Kale Gorrianen ustez, «etxebizitzaren arazoa gizarte arazo bat da, kolektiboa, horregatik guk udalera joko dugu proposamenekin. Egoera aldatzen hasteko 3P ezinbestekoak dira».

Hiru eskaerak

Hauek dira hiru eskakizunak:

1. Etxebizitzaren inguruko azterketa sakona egitea; 2. Etxebizitza eskariaren azterketa egitea; 3. Etxebizitzaren arazoari jarraipena egin eta irtenbideak bilatzeko gune bat sortzea.

Etxebizitzaren arazoari erantzuna eman aurretik, udalari azterketa sakon bat egitea eska-

tzen dio talde horrek. Azterketa udaleko teknikoei egin beharko luke Kale Gorrianen ustez, eta aztertu beharrekoa, berriz, etxe kopurua, egoera, prezioak, kostuak, merkatua, eskaintzak eta abar lirateke.

Etxebizitzaren eskaria aztertean, «herriarren eta batik bat gazteen etxebizitza-eskaria aztertzea eskatzen dugu» Aipatutako eskariaren azterketan gazteen beharrak, nahiak eta bakoitzaren egoeraren arabera aukerak aztertzea, azterketa enpresa soziologiko batek egitea eta eskariak jaso ahal izateko herrian bulego bat jartzea eskatzen dute.

Kale Gorrianek etxebizitzaren inguruko gune baten «premia» dagoela uste du. «Guneak, udal taldeez gain, arazoari loturiko giza taldeekin osatua egon beharko luke». Gunearen eginbeharrak aipatutako azterketei jarraipena egitea eta arazoari irtenbide posibleak aztertzea omen lirateke. ■

Inaxita
PELUQUERIA-ILEAPAINDEGIA

ORRAZKERAK SOLARIUM

Erdikale, 16 - 1.º
 Tel. 81 18 24
20730 AZPEITIA
 (Gipuzkoa)

Uztaro Haurtzaindegia
 1975 - 2000
 XXV. Urteurrena

0-3 urte arteko
 haurren txokoa

Uztaro Haurtzaindegia
 Jesus eta Maria Komentua
 943 81 31 90
 20730 AZPEITIA

C O E G

HORTZ KLINIKA
 Dr. Antonio Rafaniello

- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoa.
- Ahozko Zirujia.
- Implante integralak.
- Protesis mogikorraren sustituzioa, protesis fijora.
- Piezo gabekoa, sustituzioa piezo fijora.

Enparan n°8 - 1º Tel.: 81 67 36

DANONA

Zirkuituan sartzeko berritua

Pilotako puntako hainbat partidu antolatuko da Izarraitz frontoian

► Azken urteetan puntako pilotak herrian indar handirik izan ez badu ere, udalak herria zirkuituan sartu nahi du ► Izarraitz frontoi berrituaz baliatuko da horretarako ► Saninazioetatik hona antolatu dira partidu handi batzuk, eta beste batzuk iragarriak daude

Enekoitz Esnaola


Azpeitia pilotaren zirkuituan sartzea, horixe da udalaren helburua. Eta dagoneko martxan hasia du proiektua, Izarraitz frontoiaz baliatuta.

Lehendabizi, Zubeldia sendiari pilotalekua erostea erabakia zuen udalak. Eta ondoren, frontoia bera berritzeari ekin zion, zaharritua baitzegoen gaur egun han partiduak antolatzeko. Iazko Saninazioetan ireki zen frontoia, punta-puntako eskuzko partidua-ekin, eta harrezkero bai eskuzko bai erremonteko jokalar handiak izan dira bertan; esate baterako, Ruben Beloki, Mikel Unanue, Jokin Errasti eta Mikel Goni pilotariak, Koteto Ezkurra, Txetxu Iriarte eta Matxin erremontistak... «Azpeitia pilota munduko zirkuituan sartu nahi dugu, eta horretarako ahalegin handia egingo du udalak. Jadanik egin du, frontoia erosten eta berritzen, eta hemen-dik aurrera ere egingo du. Hala ere, betikoa: ahal dela ez da dirua galtzen irten behar. Orain arte oso ondo atera dira jaialdiak, puntako partiduetara erruz etorri baita jendea», dio Alejo Uranga kirol zinegotziak (EAJ).


Antolatu diren jaialdiengatik eta aurrera begira dagoen asmoagatik, enpresen jarreran aldaketa bat egon dela dio Urangak. «Lehen gu ibiltzen ginen enpresen atzetik, partiduren bat antolatu nahi genuela esanez. Orain, ordea, eta batik bat azkeneko jaialdien ondorioz eta frontoia berritu delako ere bai, enpresak beraiek ari zaizkigu deitzen, partiduak antolatu nahian. Hor ikusten da haiek ere nahi dutela sartu Azpeitia beren zirkuituan».

Propio frontoia ikustera ere etorri omen dira. «Orain dela hilabete Katxin Uriarte zesta punta jokalar ohi handia etorri zen hau ikustera. Eusko Basque enpresan dago orain Katxin, pala eta zesta ibiltzen dituen enpresa da hura, eta asko gustatu zitzaion frontoia nola dagoen».

Aurten jadanik izan dira punta-ko jaialdi batzuk Izarraitzen (Sansebastianetan eta Ihauterietan), eta urte honetarako badaude beste batzuk iragarriak. Uranga kirol zinegotziak urtearen hasieran Aspe eta Asegarce enprekin bilera bat egin zuen, «eta, horren ondorioz, jadanik ziurta dai-



◆ kirola: Izarraitz frontoia ◆



Alejo Uranga (kirol zinegotzia):
**“Lehen gu ibiltzen ginen
pilota enpresen atzetik;
orain haiek dabilta deika”**



Sarrera berria ◆ Hainbat obra egin dira frontoian, eta haie-tako bat da beheko harmailetara sartzeko sarrera berriarena. Jen-dearen trafikoa arintzeko balio du.



Larrialdietarako irteera berritua ◆ Araudiak eskatu bezala, ondo jarri da larrialdietako irteera, lehengoak berritu ederra hartu duelako.

teke Saninazio bezperan enpresa bateko pilotari onenekin jaialdi bat izango dela eta Saninazio egunean beste enpresarekin». Eta Saninazio bigarrenkoz ere izango da jaialdirik: erremontekoa, hain zuzen. «Galarretan antolatzen dira erremonteko jaialdi gehien, eta haiekin ere jarri gara harremanetan eta esku zabalik hartu gaituzte». Urtea amaitzeko,

Saninazioetatik hona

Beloki, Unanue,

Errasti, Goni II.a,

Ezkurra edota Iriarte

bezalakoak izan

dira Izarraitzen

txapelketak ere jarriko ditugu, haiek ezagutarazteko: eskuzkoak, erremontekoak... Haien aldeko lana ere egin behar da». Hala, maiatzean gazte erremontisten txapelketa bat antolatuko dute, eta han izango dira herriko eta inguruko jokalaririk batzuk: Bereziartua, Badiola, Etxeberria... Maiazteko lau asteburutan jokatu da, larunbatetan.

Juan Pedro Azkarate da Izarraitz frontoiko arduraduna; hain zuzen, 1972tik dauka kargu hori donostiar honek. Eta halabeharrez etorri behar izan zuen, erretiroa hartu behar izan zuen-eta erremontista gisa. «1969an desgaste bat izan nuen aldakatan. Oraindik ere akordatzeko naiz nola joan nintzen Etxabarren medikuarengana eta nola esan zidan, nire zorritxarrerako, ezin nuela erremontean jokatzeko segitu. Egin nituen ahaleginak jokatzeko, eta Bartzelonaraino joan ere bai sendatzera, baina injezio bidez zerbait egin zidaten arren, erremontea utzi behar izan nuen. Eta orduan sortu zitzaidan hona kantxaren arduradun bezala etortzeko aukera. Jose Mari Salsamendik, orduko Galarretako arduradunak bidali ninduen hona», dio Juanpek, nostalgiaz puntu batez.

Lesio hura izan aurretik, puntako erremontista izan zen. 1956an egin zuen debuta, Madrilén. «Aste batzuk lehenago eraman gintuzten hara, Recoletos frontoira,

Juan Pedro Azkarate, frontoiko kantxero azkeneko 28 urtean



entrenamenduak-eta egitera, nola erantzuten genuen jakiteko. Elurra ari zuen latz Madrilera iritsi ginenean».

19 urte zituen debuta egin zuenean, eta 32rekin utzi zion jokatzeari. 35rekin etorri zen Azpeitira, orain dela 28 urte. Eta ez zaio damutu.

«Ni donostiarra naiz, eta hara joaten naiz asteburuero, baina han bezain ongi nago hemen. Oso jende ona da hemengo».

Eta Izarraitzeko kantxero gisa egin zituen bere lehen-danbiziko urteetan gozatu egin zuen, «egundoko jaial-

diak antolatzen zirelako eta egundoko jende pila etortzen zelako partidua ikustera. Afizio handia zegoen orduan. Hemen jokatu daude Atano III.a, Gallastegi, Onaindia... Herramintako puntako partidua ere jokatzen ziren».

Santo Tomaseta eskuzko jaialdia izango da, Aspeko pilotari onenekin.

Gazteak ere helburu

Baina Urangak dioenez, urtean zehar bestelako jaialdirik ere izango da. «Batetik helburu hori dugu, puntako pilotariak eta ekartzeko helburua. Baina ez gara horretara mugatuko. Gazteen

Maiatzean

erremontista gazteen

txapelketa jokatuko

da; Santo Tomaseta

eskuzko puntako

partidua izango da

Horren ildotik, gazteen partidua telebistaz emateko aukera aztertuko dute. «Besagain enpresak Bizkaia aldean badu halako akordio bat hango herri-telebistekin, eta gazteen partidua grabatu eta gero, partidua haiek telebista propioa duten herrietan ikusten dira. Azpeitian ere bada herri-telebista (Kaito), eta litekeen denez udalak Kaitorekin hi-

◆ kirola: Izarraitz frontoia ◆

tzarmen bat sinatzea, hemen antolatzen diren partiduak Bizkaian botatzea aztertuko dugu. Hartara, horko zirkuituan ere sartuko ginateke».

Eskurako, horma faltsua

Frontoia berrituta dago, baina bukatzeke. «Oraindik hemen egin daitezke gauzak. Eta haietako bat da eskuzko partiduetarako

ikuspuntuak



Txetxu Iriarte (erremontista):

«Hemen inguruko dotoreenetakoa. Lurra du oraindik oso latza, baina jarriko da ibiliaren ibiliz. Baina orain ere jokariok ez dugu ezeren aitzakiarik hor».




Pello Aizpuru (erremontista):

«Inoren inbidiarik ez dauka. Euskal Herrian ezagutzen dudan onena da. Oso frontoi alaia da, gainera, eguzkiaren argi asko sartzen delako. Ederra benetan».



Garai halek... ◆ Jende ona etortzen zen 1970eko hamarkadan Izarraitzera. Goiko argazkia 1976ko abuztuaren 13koa da, eta Iturri palista da ezkerrekoa; Juanpe Azkarate ondokoa. Eskubiko argazkia 1978ko Sansebastian eguneko da, eta Nicolas Zubeldia (frontoiaren jabea), Rafael Alsua palista eta Azkarate bera ageri dira.



Eta diru asko jokatzeko omen zen. «Chicago ematen zuen honek. Lan asko zegoen garai hartan, eta jendeak jokatu!... Galarretatik etortzen ziren artekari batzuek esaten zuten hemengo bi gautan igoal Galarretako lau arratsaldetan baino diru

«1970eko hamarkadaren hasieran Chicago zirudien honek; jendeak jokatu!...»

gehiago biltzen zutela». 1970eko hamarkadaren hasieran astean bi egunetan jokatzeko ziren partiduak —ostegunetan eta asteburuan—, «eta Tximela puntistak jokatzeko zuenean emakume asko etortzen zen».

1980ko hamarkadaren ha-

sieran hasi zen jaisten mugimendu hura, «langabeziagatik». Eta hamarkada hartan frontoiko protagonista zein kirol izango eta saskibaloia. «Orduan ere ongi pasatu nuen Iraurgikoein. Ez ditut ahaztuko Arregi Txapao, Xubi, Oyono...».

Pilotak behera egin arren, Juanpek hor segitu du, etorri zenean bezala, tartean behin partiduak zeudenean guztia pronto edukitzen —garai berri hau hasi aurretik 1992an jokatu ei zen azken partidu ofiziala—, eta, bestela, mutil gazteei erre-montean erakusten ikastaro bidez. «Guztira 20-25 bat jokalaria atera dira hemendik profesionaletara. Orain badiut hamar bat gazte eta nik uste pare batek irtengo dutela». Besteak beste, Ilunpe esku pilotakoak ere aritzen dira astean zehar Izarraitzen. Eta Juanpe oso kontent, Izarraitzen bizia dagoelako.

Hurrengo urteko ekainean jubilatuko da, eta Donostia-ra joango da bizitzera. Baina ez omen da inoiz ahaztuko Azpeitiaz.

moztea, handiegia geratzen baita, eta pilotan errebotera bidaltze horrek badu halako zera bat. Horma faltsu bat jar daiteke».

Orain urtebete frontoia Errendimendu Altuko Zentru gisa erabiliko dela ere komentatu zen, baina Urangak dio oraingo ez dagoela ezer. «Baina azpialdean terreno asko dago eta egin daiteke zer-bait inoiz». ■



Iban Otaegi (pilotaria):

«Oraingo, ez dago ondo eskurako. Latzegia dago lurra. Eta, bestetik, pixkat handiegia da: luzer- ran, zabaleran metro bat, koadroak metro erdi bat, baina tira...».



Jokin Errasti (pilotaria):

«Frontoi polita da. Hori bai, luzer- ran handiegia da, bai guretzat, baita ikusleentzat ere. Jo igo- al zazpigarren koadroraino eta oraindik frontoi erdian zaude».

Kontua da...

Iraurgiko alkate nagusiaren haserrea Azpeitia sortzean



Imanol Elias
Historialaria

1 310ean Iraurgiko biztanle batzuk elkarturik herri bat sortu nahi izatea ahalegindu ziren unean, bertako alkatea aritu zen, Pedro Ruiz Auzmendi jauna, beraien nahia zapuzten, jabeturik nonbait bere nagusitasuna galtzeko zorian zela. Gogoan eduki behar da, Iraurgi osoaren lurraldeko alkatetza hori, berak ez ezik, bere aitak eta aito-



oSasuna

Urdailaren dilatazioa

Gastronomia, jateko artea da. Gure senak ezartzen dizkigu mugak baina, zoritxarrez, pertsonak galdu egin dute sen hori; aldiz, aske dabiltzan animaliek ongi mantentzen dute. Inoiz ez dugu behi bat

ikusiko larrean zortzi ordu baino gehiago, nahiz eta belar ona eta asko eduki.

Otordu handi baten ondorioa kaltegarria izan daiteke urdailaren dilatazioan. Gehi-

tzen doan hantura sortzen da, haizea, janariak, edariak eta sabelaren pankrearen eta hesteen jariaketak gero eta gehiago pilatzen direlako; hau gertatzen da liseriketarako organorik garrantzitsuena —urdaila— atonito gelditu delako, elikagaiak suntsitu eta gero



Julian Bereziartua
Medikua

gorputzean banatzeko uhin-mugimendurik (peristaltikorik) gabe gelditu delako. Gure liseri-hodiak ez du onartzen geldialdi hori, aurre egiten dio eta jana-

riak aurrera bultzatu ezin duenez, botaka hasten da. Denbora alferrik galdu gabe, lehenbailehen oheratzea gomendatzen dugu, zerbait epela eta beroa urdail gainean edo


sabelaren goialdean ipini eta mantzaila bat hartzea. Askotan kafea, tea, piper hautsa... bezalako elikagaiak eragiten dute urdailaren hantura hori. Alergiaren batek ere eragin dezake. Komenigarria da alkalinoak hartzea: esne hotza, bikarbonato sodikoa...

NOLA OSATU

Janaren ondorioz botaka hasiz gero, ohean, zerbait epela jarri sabel gainean

SuKaldaRitZa

Txibiak plantxan



Txibi freskoak lehendabizi ondo garbitu behar dira. Ondoren plantxa gainean jarri baino lehen, bu-

kaeran botako dugun salda prestatuko dugu olioia, limoia eta gatzarekin. Olio apur bati, limoia estutu ondoren-

inguRugiRoa

Eoloren argia

Orain arte erabili izan diren eta ditugun energi iturri tradizionalak, zentral nuklear, termiko eta hidroelektrikoak dira. Jakina da hauek ingurugiroari egiten dioten kaltea eta energi iturri hauen monopolioa dutenen kezka zein den: zentral hauek erregaia bukatu egingo direla.



nak izan zutela urteetan zehar, eta ez da harritzekoa oztopoak jartzen saiatzea biztanleen ideia moztu nahirik. Izan ere, herria sortzean, bertako biztanleen artean aukeratuko zituzten agintariak, eta nagusitasunak ez ezik, lurraldearen zati handi batek ihes egingo zion eskuetatik. Muturralde ederra agertuko zuen, seguraski, sendiak izandako nagusitasuna galtzen ikusirik...

Sortu zen Azpeitiko herria eta Auzmendi jaunak ez

zuen etsiko. Horrela agertzen zaigu 39 urte beranduago ere borrokan; ordurako, gainera, galdurik zuen bere alkatetza lraurgi osoan, Azkoitiko herria sortu baitzen 1324n.

Erregeak 1349ko uztailaren 27an eman zuen burupenean agertzen zaizkigu garaiko azpeitiar borrokari batzuen abizenak eta beraien artean honoko hauek: Arriaga, Arsuaga, Mandiola-

ALKATE OHIA

Sortu zen Azpeitiko herria, baina Auzmendik ez zuen etsiko: 39 urte beranduago ere borrokan

za, Garai, Egurza eta Oiarzabal, beraien jatorria garbi adierazten dutenak.

Oraingo politikariak kritikatzeko ditugu beraien postuan urteak eta urteak egiten dituztelako, inoiz postu hori uzteko gogorik

agertzen ez dutelako; baina dirudienek, ez da azken urteetan sortutako gaitza, eta adibidetzat har dezakegu lraurgiko Alkate Nagusiaren jokaera hura.

Mari Carmen Etxeberria / Pastorkua Erreategia

osagaiak

Txibiak ■ Olloa ■ Baratxuri bat ■ Limoia ■ Gatza

go zukua nahastu eta ondoren gatz apur bat bota saltsari. Behin saltsa prestatu dugunean, txibiak plantxa gainera bota eta frijituko ditugu. Eta behin,

plantxan eginak daudela, atera eta aurrez prestatuta dugun saltsa botako dugu. Plater gozoa, erraza eta azkarra da.

On egin dagizuela!

Egun, hain kaltegarriak ez diren eta berriztagarriak diren beste energi iturri batzuk bilatzeari ekin zaio: hidraulikoa, geotermikoa, eguzkiarena, eolikoa... Gure inguruko mendietan ere zentral eoliko erraldoiak egitea aurreikusi da: Gazumen, Samino-Izazpi eta Hirukurutzeta-Karakaten. Gu era honetako eraikuntza

erraldioien aurka gaude, energia garbiaren izenean mendien txikizioa, energiaren monopolizazioa eta kontsumoa bultzatzen baitute.

Gu, energi eolikoaren alde gaude, baina ez era honetan.

Erkaxo Ingurugiro Taldea

EuSKaRa

Gurean hobeto

Zenbaiten esanetan orain arte idatzita-koagatik zital fama merezi arren, ez pentsa *zapoera* estimatzen ez dugunik. Ez horixe!

Lehenengo alean aipatu genuenez, inon den

ingururik euskaldunenean bizi gara. Horrengatik, bestetan entzuten den trakeskeriarik ez da gurean.

Esate baterako, zerbait edo norbait konparatzerakoan egoki *abesten* du zapoak. Ez du «Jon zu bezala da» esaten, «Jon zu bezelakue da» baizik.

Beste leku askotan ez bezala, gure inguruan «dagoeneko» eta «oraindik» behar bezala erabiltzen dira. Nekez entzuten da «dagoeneko ez dute eraman» edota

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga
Euskal Filologian lizentziatuak

«oraindik eraman dute» bezalakorik, hemen «dagoneko eaman debe» eta «oindik eztebe eaman» esaten baitugu.

Ez da harritzekoa hor zehar «kontuz ez ibiliz gero, min hartuko dun» entzutea, hemen «Kontuz ibili ezien, min hartuko dek motell!» dio-

gu. Eta berriro zuzen. Hemen «inori emanez gero, zuri emango nizuke» ez genuke esango, ezta? «Iñoi ematekotan, zuri emango nizuke».

Ondorengo hauetatik, zein aukeratuko zenuke? «Azterketie aprobauz geo, zelebrau berko!» edo «azterketa gaintitzekotan, ospatu beharko!».

AKATSAK
Bestean entzuten den trakeskeriarik ez da gurean

Mila lortzea xede

Azkoitia-Azpeitia probakoak, «gustora»

► Zazpigarren aldiz korritu da aurten Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia ► Partehar-tzaileen marka hautsi zen, gainera: 827 ► Milako kopu-ruaren bila doaz antolatzaileak hurrengo urtean

Uztarria

Gustora» bukatu dute aurten ere Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiko antolatzaileak, ondo joan delako VII. edizioa (martxoaren 26an jokatu zen; Simon Kasimil izan zen gizon-nezkoetan irabazle, Rocio Rios emakumezkoetan). Eta gehiago nahi dute. «Aurten 827 partehar-tzaile izan dira, eta probako erre-

korra da hori. Baina gu milako kopuruaren bila goaz hurrengo urtean», esan digu Jose Mari Flores antolatzaileak.

Baina badituzte beste helburu batzuk ere. «Proba hau aitzakia-tzat edo proba hau dela medio, Azkoitiko eta Azpeitiko jendeak atletismoa egin dezan bilatzen dugu. Eta garbi dago gure herrietako jende askok prestatzen duela proba hau».

Lasterketa herrikoia da maratoi erdia, baina puntako atletak ere ekartzen dituzte. «Eta segituko dugu ekartzen, kanpoan ere ize-na har dezan probak». ■

azpeitiarren sailkapenak

Gizonezkoak

1. HURTADO, MANU	1:08:56	(18)
2. ITURRALDE, XABIER	1:09:28	(21)
3. ZUBIZARRETA, IÑAKI	1:10:54	(25)
4. KORTAJARENA, JULIAN	1:12:23	(37)
5. RODRIGUEZ, JAVIER	1:12:24	(38)
6. LASA, XABIER	1:13:46	(48)
7. MANZISIDOR, JOSU	1:13:49	(49)
8. MANZISIDOR, JOXE MIGUEL	1:13:55	(51)
9. ORTEGA, JOSEBA	1:15:46	(64)
10. ETXEBERRIA, IÑAKI	1:19:48	(116)
10. TELLERIA, JAVIER	1:19:49	(117)
12. TENA, QUICO	1:19:58	(123)
13. AIESTARAN, JOXE INAXIO	1:20:02	(126)
14. JUARISTI, JORGE	1:21:42	(159)
15. ODRIOZOLA, MANUEL	1:22:58	(184)
16. AROZENA, HARITZ	1:22:59	(185)
17. LAZAROBASTER, UNAI	1:22:59	(186)
18. SAEZ DE BIKUÑA, GURUTZ	1:24:44	(231)
19. ALBERDI, ALBERTO	1:25:59	(267)
20. MANGAS, MIKEL	1:27:23	(308)

21. JIMENEZ, AGUSTIN	1:27:38	(312)
22. ITULAIN, MIKEL	1:27:45	(313)
23. AIZPURU, LUIS	1:27:59	(321)
24. AZPIAZU, JOSE IGNACIO	1:28:16	(328)
25. OLAIZOLA, KOLDO	1:28:28	(337)
26. IZAGIRRE, JOSU	1:28:30	(339)
27. ITURBE, HARITZ	1:28:47	(346)
28. SEGUROLA, JULIAN	1:28:48	(347)
29. DEL POZO, JUAN CARLOS	1:28:57	(353)
30. OIARZABAL, ASIER	1:29:01	(355)
31. ARRUTI, EGOITZ	1:30:19	(386)
32. AZPIAZU, ANTON	1:30:51	(404)
33. GARCIA, AGUSTIN	1:31:30	(418)
34. ARAMENDI, ION	1:31:56	(426)
35. CARRASCO, PATXI	1:32:48	(451)
36. GURRUTXAGA, IÑAKI	1:33:23	(462)
37. LIZARRALDE, J. AGUSTIN	1:33:23	(463)
38. SEGUROLA, ARKAITZ	1:33:23	(464)
39. ELUSTONDO, ASIER	1:35:29	(508)
40. YEREGI, IBON	1:35:56	(521)
41. URZELAI, JOSEBA IÑAKI	1:36:20	(529)

42. SUDUPE, ALEX	1:36:40	(539)
43. BEREZIARTUA, ASIER	1:36:42	(540)
44. CUSTODIO, ANDRES	1:40:44	(620)
45. CUSTODIO, SANTI	1:40:46	(621)
46. LOPETEGI, JEXUX	1:41:00	(629)
47. LARRAÑAGA, KOLDO	1:41:01	(630)
48. ELKOROBEREZIBAR, E.	1:41:19	(636)
49. SAN JUAN, LUIX	1:41:24	(638)
50. ETXEZARRETA, AITOR	1:43:30	(662)
51. ARRUTI, EUSEBIO	1:45:38	(694)

Emakumezkoak


1. ZEBERIO, ONINTZA	1:27:22	(307)
2. ALKORTA, ANA	1:36:26	(533)
3. ESNAOLA, ALAZNE	1:39:37	(604)

Oharra: Azpeitiar gehiagok irten zuen Azkoitia-Azpeitian, baina antolatzaileek interneten jarritako web orrialdean, aipatutako horien izenak baino ez ziren agertzen (bakarren batzuk UZTARRIAK atera ditu, sailkapen orokorrean ezagututa).

bide

**Sukaldeko altzariak
eta
horman sartutako
armairuak**

Landeta Auzoa - AZPEITIA
Tel. eta Faxa: 943 81 17 47



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

Bai ofizialtasunari

Herriko EHEk justiziako egoera salatu du

► Ostegun honetan, hilak 6, herrian da EHEren oinezko martxa ► Euskarak Euskal Herri osoan ofiziala izan behar duela aldarrikatzeko nazio ibilaldia da ► Hilaren 15ean bukatuko da, Bilbon

Uztarria

Apirilaren 1ean Baionan hasi zen martxa, eta hilaren 15ean Bilbon bukatuko da. Aste honetan, hilaren 6an —ostegunean—, Azpeitian da oinezko ibilaldia.

Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek diotenez, «une honetan euskarari zor zaion lekua emateko garaia da; euskal-



EHEren protesta herriko epaitegi aurrean.

tzaleok bat egin behar dugu Euskal Herri osoan gure hizkuntzaz bizi nahi dugunok behar eta me-rezi dugun lege-babesa aldarrikatzeko».

Horretarako, euskararen alde dauden indarrak antolatu beharra

azpimarratu dute, «Madrido eta Parisko gobernuak esaten dutenaren zain egon gabe». EHEkoen arabera, aspaldion ofizialtasunaren eskaria Nafarroara eta Iparraldeko herrialdeetara mugatu bada ere, «Euskal Autonomia Erkidegoan ere badago gabezirik». Haien ustez, «euskarari ezarri zaizkion esparru legalek ez dituzte inon bi ezaugarri betetzen: batetik, euskara ez dute Euskal Herri osoko hizkuntza nazionala eta ofiziala bezala izendatzen; bestalde, ez dituzte euskaldunon hizkuntz eskubideen aldarrikapenak bere maila gorenean egiten».

Ofizialtasunaren aldeko martxak hamabost etapa izango ditu, eta etapa bakoitzean mezu desberdina zabalduko da. Azpeitikoan, «justizia arloan euskarak bizi duen diskriminazioa» salatuko du EHEk. Azpeitiko epaitegian lanean diharduten epaileak erdaldu-nak direla gogorarazi dute talde horretakoek. Ibilaldia Bilbon egingo den manifestazioarekin amaituko da hilaren 15ean. ■



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

OKINDEGIA • PANADERIA



OGI-EDER

Barrio Landeta, s/n.
Telf. 81 26 64 AZPEITIA



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA
- ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67
E - mail: Azkoitia@urola.hezitek.net

Loiola hiribidea, 4 (Esklabak)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 37 70 Fax.: 943 81 66 20
E - mail: Azpeitia@urola.hezitek.net

Perdillegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94



Lore Sortak
Koroia
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu



Telf.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

6. alea, 2000ko apirila

25

Segabathor

musika taldea



“Oraingoz, ahalik
eta kontzertu
gehien ematea
dugu helburu”

Euren adrenalina askatzeko Zubizahar-eko lokaletan entsaiatzen du **Segabathor** taldea osatzen duen boskote honek. Nahiz eta ez daramaten denbora askorik taldearen izenpean, jadanik badute plazaratua **maketa bat** eta sari bat ere irabazi dute. Haiekin egon gara entsegu-lokalean elkarriketa dela eta.

Aitor Bengoetxea

► Nola osatu zenuten taldea?

Hasiera batetan Joseba (kitarra) eta Oxkar (kitarra) aritzen ziren Hotzikara ize-neko taldean. Orain abeslaria den Pello animatu zen ondoren eta Nartxabal (bateria) iragarki baten bitartez fitxatu genuen. Azkenik Haritz (baxua) sartu zen taldea osatzeko.

► Eta taldearen izena aldatzea erabaki zenuten.

Bai. Izen berri baten bila aritu ginen; azkenik Segabathor izenarekin geratu ginen, sega-bat-hor hitz jo-koaz.

► Zeintzuk dira musika egitean zuengan eragin zuzena duten taldeak?

Taldeakide bakoitzak bere gustoko talde asko ditu, baina atzerritarren artean talde heavy alemaniarrek dira gehienbat gure eragin zuzenenak. Euskal taldeen artean, berriz, talde pila bat: Su ta gar, E.H Sukarra eta Urtz, beste askoren artean.

► Duela denbora gutxi sari bat ere eskuratu duzue gainera.

Bai, horrela da. Gazte Leiho izeneko maketa lehiaketara aurkeztu ginen eta hirugarren saria eman ziguten.



**“HEAVY
ALEMANIARRENAK
DIRA GURE
ERAGIN
ZUZENENAK;
euskal taldeen
ARTEAN: SU TA GAR,
E.H. Sukarra...”**

▶ **Espero al zenuten hala-
korik?**

Egia esan ez. Gure nahia hamar lehenen artean sartzea zen, baina ez genuen hirugarren saririk espero.

▶ **Eta zer suposatu du honek zuentzat?**

Batik bat guretzat bultzada morala izan da. Aurrera jarraitzeko gogoari eusten baitzaio lanak fruitua eta errekonozimendu bat dakerrenean. Gainera, taldea gehiago ezagutaraztera emateko ere balio izan du.

▶ **Zer nolako egoera ikusten duzue Azpeitian musika taldeen inguruan?**

Baionan saria

Elkarrizketan dioten bezala, ahalik eta kontzertu gehien ematea da Segabathorren helburua oraingoz. Eta xede hori ari dira betetzen azpeitiar hauek. Izan ere, joan den urtarrilaren 14n Baionan Gazte Leiho maketa lehiaketaren hirugarren saria jaso zuen herriko talde honek —Anje Duhalde abeslari lapurtar ezagunak eman zien, hain zuzen, saria—. Arrakasta haren ondoren, Senperen (Lapurdi) eman zuten aurreneko kontzertua, urtarrilaren 29an. Horretaz gain, beste hamar talderekin batera, Agorilarekin diska konpaktu bat grabatuko dute.

ka taldeen inguruan?

Badago jende ona hemen inguruan, nahiz eta sekulako maila ez egon. Gainera, estilo desberdin asko jorratzen dituzten taldeak ditugu. Rock, reagee, musika elektronikoa, hori da aberasgarriena.

▶ **Zer moduzko esperientzia izan duzue maketa grabatzean?**

Esperientzia ona izan da, nahikoa ongi moldatu baikara. Gainera, asko lagun-

du digun jendea izan dugu aldamenen eta gustora gu gaude emaitzarekin.

▶ **Zer aurki dezake entzuleak lan honetan?**

Hori entzulearen arabera ere badago. Pertsona batentzat gogorra izan daiteke eta beste batentzat, aldiz, biguna, berak gogoko duenaren arabera. Baina orokorrean nahiko lan melodikoa dela uste dugu.

▶ **Zer esaten duzue abes-tien letretan?**

**“NAHIKOA
ONDO MOLDATU GARA
GRABAKETAN,
ESPERIENTZIA
ONA IZAN DA,
eta gu
GUSTORA GAUDE
emaitzarekin”**

Ba, egia esan, denetik. Letra guztiek ez dute ildo bera jarraitzen eta bakoitzak gai desberdina du.

▶ **Zer asmo dituzue epe motzerako?**

Oraingoz, ahalik eta kontzertu gehien ematea da gure nahia, esperientzia hartzen joateko.

▶ **Eta gerora begira?**


Edozein talderena bezala, diska bat grabatzea litzateke nahia gerora begira. Bina musikaren mundu hau ez da batere erraza eta lan asko egiteaz gain, zorte pixka bat ere behar da gaur egun merkatua nola dagoen ikusirik. ■

Orain arteko bi lehiaketatako batzuk

Ondorengo bi orrialdeetan doakizue orain gutxi Argazki Elkartek eginiko beste bi lehiaketetako adibide sorta

bat. Santo Tomasetan eta Kross Rallyan ateratako argazkietako batzuk dira ondorengoak.

IX. Santo Tomasetako lehiaketa



41 lagun argazki rallyan

Urola Bailarako lehiaketan atera ziren, hilaren 2an

Beste behin, argazkilarientzako egun aproposa antolatu zuen pasa den igandean Azpeitiko Argazki Elkartek, Azpeitia eta Zumaia arteko Argazki Rallya antolatu baitzuen, eta partehartzea handia izan zen, 41 lagunek irten zutelako. «Azpeitiarrak ginen erdiak pasa», esan digu Joxe Ramon Larrañaga, Argazki Elkarteko lehen-dakariak. Zazpi gai zituzten, eta izan zuten arazorik bi gairekin, Larrañagak dioenez: «Olatuarena zen gai bat eta olaturik ez egun hartan! Arrantzaleena zen beste gai bat eta Zumaian orduan inor ez arrantzuan! Eskerrak hemen inguruan ibaian bazela arrantzarlerik».

► Hilaren 2an egin zen Urola Bailarako Argazki Rallya. ► Ibilbidea Azpeitia eta Zumaia artekoa zen
► Maiatzaren 6an izango da sari ematea

Uztarria

Lehiaketa bi mailatan banatu zuten: nagusien mailan jardun zuten batzuek, eta 16 urtetik beherakoak beste maila batean neurtu ziren. Lanak hilaren 19a baino lehen entregatu beharko dira. Eta maiatzaren 6an izango da sari ematea, Trenaren Museoa. BILDUMA onenari 20.000 pezeta eta garaikurra emango zaio. 16 urtez beheko hiru bilduma onenei garaikurra emango zaie.

Ohiko sari horiez gain, hiru sari berezi ere banatuko dira: rallyko argazki onenari, fototeka argazki onenari eta herriko lehen sailkatu ez sarituari. Hiru sari hauen irabazleei ere argazki elkarteko garaikur bana emango zaie. Bada, beraz, denentzako aukerarik. ■

I. Kross Lehiaketa



Aldameneko argazkian, sarituak. Behekoan, Joxe Ramon Larrañaga irabazlearen argazkiak



JATETXEA

Loyola hiribidea, 24

LOYOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



PEUGEOT

AIZPURU
AUTOAK

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



Azpeitia
Kimu bat

UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea
Tel./ Faxa: 943 15 00 85
AZPEITIA

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta hilaren 20rako bidali gutuntxo batean helbide honetara: Uztarria Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:


Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Pastorkua Erretegian** bi lagunentzako afaria izango du, eta **Uztarriaren elastiko bat** ere jasoko du.

aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: **Inazio Araneta**



Afaria eta elastikoa ◆

Inazio Araneta izan da bosgarren irabazlea (ezkerrekoa da). Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Patxo Erretegian (jabeak ere ageri dira argazkian), eta Uztarriaren elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria

BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikatua.



Esther Usandizaga

FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K

Tfnoa: 943 15 17 52

20730 Azpeitia-Loiola

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurlaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zaborteia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

Osasuna

Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22

Komunikabideak

Uztarria (berria)	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

Alderdi politikoak

EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11

Sindikatuak

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

Ikastetxeak

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28

Garraioak

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkarte	85 25 87
Taxiak	81 13 07

Kultura - Euskara

Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria (berria)	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

autobusak

JOATEKO

Azpeitia-Zestoa-Donostia

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2).
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15.
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.

Azpeitia-Eibar-Bilbo

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30.
Enpresa: Pesa.

Azpeitia-Bilbo-Leioa

Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azpeitia-Azkoitia

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zestoa-Zumala

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Azpeitia-Zestoa-Zarautz

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zumarraga (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Errezil-Tolosa

Astegunak: 6:55, 13:55.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

ITZULTZEKO

Donostia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30.
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00.
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.

Bilbo-Eibar-Azpeitia

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00.
Enpresa: Pesa.

Leioa-Bilbo-Azpeitia

Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azkoitia-Azpeitia

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55.
Enpresa: EuskoTren.

Zumala-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Zarautz-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00.
Enpresa: EuskoTren.

Zumarraga (hospitela)-Azpeitia

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30.
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45.
Enpresa: EuskoTren.

Tolosa-Errezil-Azpeitia

Astegunak: 9:30, 18:30.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

farmaziak gauez

Apirilaren 3tik 9ra

Jaen (Azkoitia).
Ibaiondo, 28. 85 06 60.

Apirilaren 10etik 16ra

Garcia. Enparan, 29.
81 12 74.

Apirilaren 17etik 23ra

Azpiazu (Azkoitia). Kale Nagusia, 66. 85 29 89.

Apirilaren 24tik 30era

Aseginolaza.
Plaza Goikoa, 2.
81 13 50.

Maiatzaren 1etik 7ra

Gisasola (Azkoitia). Jan-donianiz, 5. 85 12 35.

gune publikoen ordutegia

Udaletxea

Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.

Ixpixioa

Egun osoz irekita.

Igerilekua

Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Kiroldegia

Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Udal Liburutegia

Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

apiRila

6 (osteguna)

■ EUSKARA.

EHE-en martxa, Azpeitira Hotel Loiola aurrera 19:00etan helduko da. Justizia oinarritzat hartuta kaleetan ibili ondoren epaitegi aurrean agurtuko da martxa.

■ KILOMETROAK.

KM'00 dela eta, elkarretekako sukaldaritza gaitzat hartuta hitzaldia Enparan Dorretxean 20:30etan. Hizlariak Juan Mari Arzak eta Juan Mari Elorza.

■ INFORMATIKA.

Iraurgi Lantzenek antolatuta emakumeentzat informatika ikastaroa. Epea, apirilak 6tik 14 arte. Ordaina 4.000 pezeta. Ordutegia, goizeko 10:00etatik 12:00etara Azkoitiko IMI zentroan, Aizkibel kalean.

8 (larunbata)

■ INAUGURAZIOA.

Atzegi-Txolarteren lokal berriaren inaugurazioa. Perdilegin. 17:00etan.

■ SASKIBALOIA.

I. Autonomikoa: Iraurgi-Profusa Loiola Indautxu. Kiroldegian, 18:30etan.

9 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Txistulariak goizeko 9:00etan.

■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.-ren egun guztirako irteera helduentzat Mendaurrera. Autobusa goizeko 8:00etan aterako da plazatik.

■ KILOMETROAK.

KM'00 dela eta, bailarako soziedadeen makailau lehiaketan herriko plazan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara. 25 bat partaide ariko dira sukaldetan. Giroa alaitzeko trikitilariak-eta izango dira.

■ MUSIKA.

Juan de Antxieta Musika eskolako ehunen bat ikaslek parte hartuko duten musika jaialdia udaletxeko arkupeetan eguerdiko 13:00etan.

■ FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-

musika kritika

■ Segabathor-en lehen maketa.
■ Kideak: Pello, Joseba, Oxkar, Nartxabal eta Haritz.



OSO SOINU ONEKOA

Segabathor-en lehen maketa honetan metal klasika edo heavy metalaren eragin nabarmenak daude. Eta erraz koka dezakegu Euskal Herriko zenbait talderekin batera (Latzen, Ehun Kilo, Idi Bihotz edo hasierako Su ta Gar). SBH-k izango du taldeon tokerik, baina SBH-k bere nortasuna du.

Maketa hau entzuten hasten zarenean, konturatzen zara oso soinu ona duela. Ez da garai bateko lokalean lau pistarekin grabatutakoa. Zenbait diskek nahiko lukete honelako soinua edukitzea. Dena garbi entzuten da, bai instrumentuak, baita ahotsak ere. Instrumentalki oso onak direla segituan nabaritzen da. Ahotsak, berriz, Exkixuko abeslaria ekartzen dit gogora.

Maketa sei kantuk osatzen dute, eta bertan gai eta doinu desberdinak daude. Top gazteko kantu bat (kantu polita gehi letra erraza); gero dator Bagoaz, maketako speed metal hutseko abesti bakarra; hirugarrenik *Suzko euria* («zibilak hilak» abestean ebakitzen duten riff hauek maketako kanturik onena bihurtzen dute); *azken agurra*: nahiz eta balada bat ez izan, sentimenduz beteriko abesti eder bat; mendekua: V. Mendeurrenaren aurakoko beste abesti bat; eta azkenik andramaixek: azpeitiarrek azkoitiarrei adarra jotzeko aterazuten bertsio metaleroa.

Koldo Eizmendi

Zalla. Garmendipen. 16:30etan.

14 (ostirala)

■ MUSIKA.

Perkusioko ikastarorako izen emate epea amaituko da. Ikastaroa Musika Eskolan maiatza eta ekaina bitartean, ostiraletan. Marakak, bonboak, tunbadorak, kabassak eta abar. Erritmo tropikalak eta afrikarrak.

■ EUSKARA.

Kontseiluaren euskararen normalizaziorako plan estrategikoren aurkezpena. 20:30etan. Aitonengan.

■ BERTSOLARITZA.

Bertso-afaria Gure Ametsa elkartean. Bertsoan Aritz Aranburu, Beñat Lizaso eta Urko Egaña ariko dira.

15 (larunbata)

■ GARAGARDO JAIA.

Kale Gorrian-ek antolatuta arratsaldean manifestazioa eta ondotik garagardo festa azoka plazan.

16 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia. 9:00.

■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.-k antolatuta umeentzako egun guztiko mendi irteera Santa Engrazira. Irteera goizeko 9:00etan plazan. Egunean zehar jolasak eta erromeria izango dira.

■ MUSIKA.

Banda Gaztearen kontzertua udaletxeko arkupeetan. 13:00.

20 (osteguna)


■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.-ren aste santutarako mendi irteera, ostegunean goizeko 7:00etan autobusa plazan eta igandean buelta. Egonaldia Bernedoko aterpean, Kantabriako mendiak eta Valderejo eta Izkiz parke naturalak. Prezioa 10.000 pezeta, bazkideak 9.000 pezeta.

23 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia. 9:00.



■ MUSIKA

Hilabetea: Martxoa, apirila, maiatza, ekaina

Ordua: Asteburuetan

Tokiak: Plaza, tabernak, kalea

peetan, tabernetan eta kaleetan. Pasa diren asteburuetan, Kitarra Taldekoek udaletxeko arkupeetan euren emanaldiak eskaini dituzte, Amaia Garmendiaren zuzendaritzapean. Euskal giroko kanta zaharrak gogora ekarri zituzten. Kitarra ikastaroetan ikasiak kaleratuz, kantari ezagunen, Mikel Laboaren, Benito Lertxundiren eta Etzakit taldearen doinuak eskaini zituzten kitarrajoleek.

Ikaro Maskarada taldearen ikusentzunezko muntaiaren euskal bertsioaren estreina martxoaren 19-

an herrian izan zen, Zelaitxon. Juan Carlos Perez eta taldearen zuzeneko musika, antzezleak eta dantza jasotzen dituen taularatze bikainaz gozatzeko parada izan zen. Ikarok arte adierazpen ezberdinak jasotzen ditu.

ASTEBURU MUSIKALEN SEGIDA

Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Izarraitz Txistulari Taldea, Juan de Antxieta Musika Eskola, Kitarra Taldea (argazkian, hilaren 19ko ekitaldian) eta Banda Gazte-

aren partaidetzarekin, martxoa, apirila, maiatza eta ekaineko asteburuetan musikarik ez da falta izango herriko hainbat txokotan, besteak beste udaletxeko arku-

peetan, tabernetan eta kaleetan. Pasa diren asteburuetan, Kitarra Taldekoek udaletxeko arkupeetan euren emanaldiak eskaini dituzte, Amaia Garmendiaren zuzendaritzapean. Euskal giroko kanta zaharrak gogora ekarri zituzten. Kitarra ikastaroetan ikasiak kaleratuz, kantari ezagunen, Mikel Laboaren, Benito Lertxundiren eta Etzakit taldearen doinuak eskaini zituzten kitarrajoleek.

■ FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Tolosa. Garmendipen. 16:30etan.

25 (asteartea)

■ ARGAZKILARITZA.

Juan de Antxieta Argazki Lehiaketaren sari banaketa. Gaia: sokamuturra (Ihauterietakoa). Antxieta Etxean. 19:00. Antolatzaila: Kutxa gizarte-ekintza.

29 (larunbata)

■ SASKIBALOIA.

I. Autonomikoa: Iraurgi-Zarautz. Kiroldegian. 18:30etan.

■ MUSIKA.

Izarraitz Txistulari taldearen kale animazioa. 19:30etan.

30 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia. 9:00etan.

■ MUSIKA.

Araiako bandaren kontzertua udaletxeko arkupeetan. 13:00.

■ FUTBOLA.


Hirugarren Maila: Lagun Onak-Santurtzi. Garmendipen. 16:30.

UZTARRIAREN OHARRA taldeei: bidali zeuen ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre.

apiRila

Martin Alegria

...eo Martin karterue; karta banatzen ikuste deu gehien-gehienetan, baño baita beste mille saltxatan'e. Han ta hemen, beti gure balore kulturalen postari deu Martin.



"KULTURAN OINARRITUTA GAUZA TXUKUNEK EIN ZEZAZKEAU, BAITA EZTEYEK'E"

► Nolatan hasi hitzean karta banatze hortan?

Bizitzeko lanien hasi ber! Eta postari baño lenuo gerra ondoko proletayo izendakue nauk. 19 urtekin bizkerrezurreko operaziyo gogorra izen nian, eta Bereziartua medikuek esan zikan: «Heuk ikusi, baño ofiziyoz aldatzen baek, heuretzat hobe».

► Ta ofiziyoz aldatzen hasi ta kartero. Lagun batek esan zikan hiri pegatzeikela kartero izete horrek.

Hortan ai banauk, hori tokau zitekelako dek, eta tokautakue gogo biziz ein ber dek. Ni aitzurrekin biziko nitxuke mendiyen, baño...

► Batekin eta bestiekin eoteko auke-

ra horreatik pegatzeikela esan zikan lagun harek beak.

Ofiziyo soziala dek, baño aldi berien bakartiye're badek. Jendiekin eote haiz, baño ez dik ematen denboraik ezertako. Ofiziyo bakartiye dek.

"Karteruena ofiziyo soziala dek, baño aldi berien bakartiye're badek. Eztik ezertako denboraik ematen"

► Kartero asko motorrien da ikusten ditxiau, baño hi, azken aldien behintzet, beti oñez.

Ofiziyo hau lortu aurretik esan ziteaben derriorez karneta atea ber niala, eta beharrai erantzunda, atea nian. Azpeitiko lehenengo motori-

zaue ni izen nituan, baño gaur egun Korreos-eko motorrak inbiltzie herroismo bat dek: ez enbrageik, ez frenoik...

► Ta, oingo karrue eo lehen-go poltsie, ze nahio?

Postari bati jarri diyoten gauzaik onena karruen bi gurpil hoiek izen dituk.

► Gaiz aldaut, hi zer haiz, nuarbetarra, azpeitiarra eo beizamatarra?

Nuarbetar, nuarbetar, nuarbetarra, hiru aldiz, Nuarbeko Martin nauk ni.

► Azpeiti baño famosuo badek behintzet mundu zabalien.

Nuarbe beti nortasun haundiko herriye izen dek, bere buruen jabe, pobrie ta xesta egilie. Kostau eifñ zikok onartzie beste baten bille jun ber dule lan bille.

► Azpeiti aldeko nuarbetarra haiz ordie, ta ez Beizama al-

dekue. Ordun, zeatik ezkondu hitzean Beizaman?

Nere jatorriye Beizaman daolako ta oso beizamatar sentitzen naizelako, Beizaman oso eroso sentitzen naizelako. Herri txiki baten ezteyek antolatzeiko gai geala erakutsi zezakeau.

► Gaur egungo ezteyekin zerikusi gutxi izen zian zuenak.

Euskal janzkeran oinarritu gituan. Betiko abarkak ta bruxe jantzi gabe, posible dek euskal janzkerekin dotore janzteko. Gure kultural oinarrituta gauzak txukun ein zezazkeau, baita ezteyek'e. Neretzat ihauteri festa bat dek ezkontzie. ■

Iban Arregi

Uztarriaren hiru ohar:

- 1.** Bazkide izatea nahi baduzu, baina zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu UZTARRIaren zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditza-zun: 2101 0029 28 0122349624 (Kutxa). Izen-abizenak eta helbidea eman.
- 2.** Azpeititik kanpo bizi den senide edo lagun bat baduzu eta hark UZTARRIA jaso nahiko balu, bidali haren izen-abizenak helbide honetara: 227 posta kutxa Azpeitia, edo behean ageri diren tabernetan utzi. Eta bestela utzi mezua 15 03 58 telefono zenbakira deituta.
- 3.** Eman beheko datuen txartelen bat UZTARRIAN oraindik harpidedun edo bazkide egin ez den herriko senide edo lagun bati. Edozein txokotan behar du UZTARRIAK!



Azpeitiko herri aldizkaria

egin zaitetz harpidedun ...doan!

Bidali hona datuak: 227 posta kutxa Azpeitia, edo taberna hauetan dauden kaxetara: Mendoza, Erreka, Zuhatz, Orkatx, Etxe Zuri

Izen-abizenak (etxetik batena):

Helbidea:

Azpeititik kanpo bizi direnak ezin dira harpidedun izan

...edo, lagundu nahi baduzu, bazkide izan zaitetzke

urtean 3.000 pezeta soilik!

Bidali hona datuak: 227 posta kutxa Azpeitia, edo taberna hauetan dauden kaxetara: Mendoza, Erreka, Zuhatz, Orkatx, Etxe Zuri

Izena eta bi abizen:

Helbidea:

NAN (DNI): Sinadura:

Kontu korronteko zenbakia (20 digito):

Azkoitia



Azpeitia

bietan gaude!!

Informatika zugandik gero eta **HURBILAGO**

- Ordenagailu salmenta
- Hardware eta software eskeintza
- Telefonía mugikorra (enpresentzat zein partikularre)



ASISTENTZIA TEKNIKO

Apirilean irekiko dugu!

Laster, denda berria
AZPEITIAN



-en banatzaile
ofiziala

Sare@



informatika zerbitzuak

Azpeitia

Pablo VI 19 b

Tel: **9431573**

sare@euskaltel

Azkoitia

Julio Urkixo 10

Tel: **943853**

sareinformatika@eusk

KALITATEZKO PAUSOA

PROZESUAREN KONTROLA ETA SEGURTASUNA

DISEINUA


ARGAZKIAK

FOTOLITORIK GABE

G R A F I C A S



ZUBI



IMPRESIO BIKAINA

BºLandeta-Arretxe, 11-Tel.: 943 15 75 02 · Fax: 943 81 37 98 · 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) · E-mail: zubi@abc.iberinet.com